



# Igoera lortuta, gogotsu eta betiko taldearekin jarraitu nahi du Aralarrek

**TOLOSA** ▶ Interautonomikoan ariko da saskibaloia taldea eta «jubenilak integratu nahi» ditu taldean ▶ 2



TAKE Aralar saskibaloia taldea Astigarragan igandean, Interautonomikora igoera fasea irabazi ondoren. HITZA



HITZA

## 60 urterekin korrika eta aizkoran marka jartzera

**GAZTELU** ▶ Patxi Mujika Tolosatik Gaztelura joango da bihar korrika eta ondoren kanako enborra moztuko du; bazkaria izango da ▶ 6



### ELECTRONICA TOLOSA

KONPONKETARAKO ZERBITZU TEKNIKOA

Telebista - bideoa - DVD - pantalla handiak

☎ 943 670 323

lurre, 4 behea 5 • TOLOSA



### TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

- ▶ Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua
- ▶ 2001ean, Eusko Jaularitzako Zilarrezko "Q" saria
- ▶ 6 urtez, ISO 9002 ziurtagiriarekin

#### Erdi-mailako zikloak: Euskaraz

- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoa

IZEN EMATEAK / AURREMATRIKULA:  
EKAINAREN 1etik 8ra



Tfn.: 943 65 11 47 / 943 65 06 64  
Fax: 943 65 18 56  
idazkaritza@tolosaldea.com  
www.tolosaldea.com  
Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA



#### ASTEASU ▶

## Urrezko aikolariak eta harri-jasotzaileak

Gaur gauean ariko dira frontoian ▶ 4

#### M.M. DEL CASTILLO ▶ TABAKISMOAN ADITUA

## «Erretzeari uztea zaila da; tratamendua eginez aukera gehiago daude»

Erretzeari utzi nahi diotenei laguntzen die Asuncion klinikan ▶ 3

## JAIK ▶

## Gaur Garagardo Festa San Esteban auzoan

Aurrekoetan bezala, gaur 00:30ean hasi eta goizalde-arrate, Garagardo Festa antolatatu dute San Esteban auzoan. Auzo elkarteak izango da festa, bertan, garagardo ezberdinak dastatzeaz gain, Djaren musikaz gozatzeko aukera egongo delarik bertaraten diren guztientzat.

## OSASUNA ▶

## Organu eta ehunen mahai informatiboa

Ekainaren 1ean emalearen eguna ospatu zuen ALCER-Gipuzkoa Elkarteak. Horren harira, organu eta ehunen emaitzaren aldeko sentsibilizazio kanpainaren barnean, mahai informatiboa jarriko du gaur elkarteak San Frantzisko kalean. Transplante baten zain dauden pertsona askoren behar larria leundu nahi dute kanpaina honekin.

## GIZARTEA ▶

## Ume jostailu batzuk jaso ditu Udaltzaingoak

Udaltzaingoak jakinarazi duenez, aste honetan herriko kaleetan aurkitutako ume jostailu batzuk eraman dituzte bere egoitzara: BH etxeako txirrinda gorri bat, Scooter etxeako aluminiozko patinete bat eta patinen joko bat. Oso egoera onena omen daude eta inork ez omen ditu erreklamatu.

## SASKIBALOIA ▶

MADDI SOROA

**K**irok kontuetan berri onez bete zaigu azkenaldian Tolosa. Lehengo asteburuan Tolosa CF ez zen izan mailaz igo zen bakarra, TAKE Aralar saskibaloit taldea ere Lurraldeko 1. mailatik 1. maila Interautonomikora igotzea lortu zuen Astigarraga jokaturako igoera fasean.

Bistan da denboraldi bikaina egin duela TAKEk aurtengoan eta emaitzek ere horixe islatzen dute, noski. 20 partidu jokatutako guztira eta soilik 6 izan dira galdu dituztenak. Ondorioz, sailkapen nagusiko laugarren postua lortu zuen taldeak; sari gisa, igoera faseko txartela eskuratu zuelarik Andoaingo Ganbara Euskalduna, Donostiako Santo Tomas Lizeoa eta Astigarragako Munderroekin batera.

Igoera fasean, beraz, ligako hiru talde onenekin aritu ziren norgehiagokan tolosarrak. Ligako laugarren postua lortu bazuten ere, argi erakutsi dute indartsuenera aurka ere irabazteko gai izan direla. Izan ere, Andoaingo Ganbara Euskaldunaren aurka 72-52 emaitza lortu baitzuten tolosarrek. Hala ere, Jimmy Perez entrenatzaileak esandakoaren arabera «satisfazio handia izan da mailaz igotzea, baina, ligako irabazlearen aurka irabaztea ere, oso lorpen handia izan da taldearentzat».

Gauzak horrela, sari ezin hobea lortu du taldeak, hain gustagarri suertatzen den, baina hainbeste kostatzen den mailaz igotzea, hain zuzen ere. Horregatik, datorren denboraldirako helburu nagusietako bat mailari eustea izango dela adierazi du Jimmy Perez entrenatzaileak.

Zorionak beraz TAKE Aralarri eta zorte on denboraldi berrian!

# Denboraldi berrirako gogotsu eta ohiko elkartasuna taldean

Denboraldi ezin hobea egin ondoren, Lurraldeko 1. mailatik 1. Interautonomikora igo da TAKE Aralar taldea



TAKE Aralar saskibaloit taldeko jokalariek eta entrenatzaileak igandean, irabazleekin koparekin. HITZA

JIMY PEREZ ▶ TAKE ARALARREKO ENTRENATZAILEA

## «Maila mantendu eta jubenilak integratu nahiko genituzke»

Jimmy Perez TAKE Aralar saskibaloit taldeko entrenatzailea da. Urte asko daramatza TAKE-ren ibilbidea jorratzen. Begien dizdiran nabari zaio saskibaloia izugarri bizi eta sentitzen duela.

**Zorionak lehendabizi. Esperozentzen garaipena?**

Aurreko denboraldia ikusita eta taldearen egoera zela eta, hasieran zaila iruditzen zitzaidan igoera faserara iristea. Gainera, aurkariaren kontrako ia partida guztiak galduak genituen eta zaila zen garaipena lortzea. Hala ere, igoera faserara pasa eta garaipena lortu dugu. Igoera faseko bi partidutan dena eman beharra daukazu,

horregatik da zaila garaipena lortzea.

**Zein asmorekin ekin zenioten denboraldiari?**

Emaitza onak lortzea izan da denboraldiaren eronka nagusia. Horretaz gain, ordea, bi helburu nagusi genituen denboraldi hasieran. Alde batetik, sailkapeneko lehen lau postuetan sartzea zen gure asmo nagusia, horrela, igoera fasean jokatu ahal izateko. Bigarren helburua, berriz, aurtengo jubenilak izan direnak apurka apurka goiko taldean sartzea izan da.

**Zer gertatuko da datorren denboraldian?**

Aurtengo denboraldian izan



EDURNE AYUSO

dugun abiapuntu berarekin ekingo diogu denboraldi berriri ere. Emaitza onak lortzearekin batera, maila mantendu eta jubenilak integratu nahiko genituzke. Izan ere, datorren urtean beterano batzuk taldean utziko dute eta horien lekua hartzeko prestatu nahi ditugu jokalaritza gazteak. ◀

**tolosand blues 05**  
ekainak 3/4/5

Ekainak 3 3 de junio	20:00	Lector Arantz Fronter Kabinaga	Pyrenees Jazz Orchestra The Cripples
Ekainak 4 4 de junio	20:00	Fronter Kabinaga	Mikel Aguirre Trio
	22:00	Pizca Berria	De 2 en Blues Band
	00:00	Fronter Kabinaga	Big Mama + Juan Pico Gonzalez
Ekainak 5 5 de junio	21:00	Pizca Berria	Blues Wander

TOLOSA

MARIA DEL MAR DEL CASTILLO ▶ ALERGLOGOEA ETA TABAKISMOAN ADITUA

## «Erretzen uztea zaila da, baina tratamendua eginez aukerak bikoiztu egiten dira»

**J.Saizar** ▶ Asteazkenean izan zen Tabakorik Gabeko Munduko Eguna. Tolosako Asuncion klinikak lan egiten duen Maria del Mar del Castillo alergologoa tabakismoan adituarekin mintzatu da HITZA. Erretzen utzi nahi dutenei laguntzen aritzen da.

### Noiztik ari zara Tolosan?

Duela urtebete. Tabakismoari buruzko masterra egin nuenetik. Erretzen utzi nahi dutenei laguntzen diet.

**Zein tratamendu gomendatzen duzu?**

Osagai desberdin asko erabiltzen ditut: botikak, psikoterapia, laguntza soziala... Gaixo bakoitzaren arabera.

### Erarra al da?

Ez, zaila da, baina laguntzarekin errazagoa. Tratamendua eginez, erretzen uzteko aukerak bikoiztu egiten dira. Urtebeteko jarraipena egiten dugu eta epe horretako abstentzioa arrakasta da guretzat.

**Zein jende mota etortzen zaizu?**

Denetatik. Emakume gehiago. Eta gizonek baino gutxiagotan

lortzen dute uztea. 40-50 urtekoak dira gehienbat eta lehenetik ere uzten saiatu dena. Bakoitzak arrazoi desberdinegatik erretzen du.

### Erretzen uztea garestia dela diote?

Urtebetean erretzen gehiago gastatzen duzu eta bizitza osoan zer esanik ez. Norik jartzen dio prezioa osasunari? Gaur egun Osakidetza ez du finantziatzen, baina hori ere iritsiko da. Nafarroan adibidez, finantziatzen du.

**Azkenean zergatik erabaki-**

### tzen du pertsona batek erretzen uztea?

Bakoitzak bere arrazoiak dauka. Aiton batek duela gutxi utzi du bere biloba ez iziolako muxurik eman nahi, usain txarra zuelako. Normalean osasunagatik, beldurragatik uzten dute edo behartuta, sekulako patologia dituztelako. Baina gazteek ez dute beldurrik: osasuna dute, edertasuna, dirua, kirola egiten du... Antisorgailuak hartzen ari zaren bitartean erretzea lehegailu bat da, adibidez. Beste batzuk



JOKEMI SAIZAR

menpekotasun horretatik libre sentitzeko uzten dute. Izan ere etxetik gauze tabakoa erostea atera behar izatea menpekotasun bat da. ◀

EUSKAL BIZIKLETA ▶



## 3. etapa Usabaldik irten da

**Erredakzioa** ▶ Atzo 14:00etan abiatu zen Eskal Bizikletaren 3. etapa Tolosatik, Usabal kiroldegi berriatik, irteera neutralizatuan. Olatz Peon eta Andoni Imaz zinegotziek moztu zuten zinta. Bidegoian eta Urrakitik barrera atera ziren Tolosaldetik eta 135 kilometroko etapa izan zuten Oroko Ama Birjinaren Santutegiraino. Etapako irabazlea Team Barloworld-Valsir taldeko Peio Arreitunandia mutrikuarra izan zen. Tolosan bezperan irabazle izan zen Eladio Jimenezek aise mantendu zuen lidergoa eta igandean Arraten bukatuko den lasterketaren garaila izateko favoritu nagusia da. Argazkietan, Tolosako irteera eta Urraki igotzen. N. LATABURU/I. ETXEBESTE

UDALA ▶

## Tolosak Bizirik taldeak Udala salatu du

«Egoera antidemokratikoa» da eta azken batzarrean mozioa ez du sartu gaitan

JOKEMI SAIZAR

Udal hauteskundeak egin zirela bi urte bete direnean Tolosa Bizirik herri plataformak Udalaren «egoera antidemokratikoa» eta herenegun egin zen udalbatzarrean aurkeztu zuten mozioa gai zerrendan ez sartzea salatu du.

Maiatzaren 25ean bete ziren bi urte udal hauteskundeak egin zirenetik. Ezker abertzaleko plataformak kontzentrazio bat burutu zuen orduan udalbatzarrean aurrean *Apartheid* ez lelopean. Aste honetako astearte arratsaldean egitekoa zen udalbatzarra, baina osteguneko goizeko zortzietara aldatu zuten «herriar multzo handi baten iritzia eta Udalaren egoera ez demokratiko larria» isilaraziz. Antton Izagirre Tolosa Bizirik-en zerrendaburuaren esanetan.

Herenegungo batzarreko gai zerrendan Udalak ez zuen plataformaren mozioa sartu. Tolosa Bizirik-eko hautagaiak eta herriar batzuk bertara joan ziren «egoera antidemokratikoa» salatzerako. Galde-erreguen txandan Izagirrek hitza hartu zuen «legekoak ez diren bost zinegotzien eta herri bo-

rondatearen arabera egon behar ziren beste bosten egoera» salatzeke. «Parte hartzeke aukerak baditugula diote izkurtuan, baina agerian ez dute onartzen», adierazi dio Hitzari. «Udalak beste aldera begiratu du, gure ahotsa isiltzeko hainbat trikimailu erabili», erantsi du. «Legebiltzarreko azken hauteskundeetan Alderdien Legea gainditua izan da eta Udalak ere lehen urratsak eman beharko luke, legez ez dauden bost zinegotzi horiek dimitituz», azaldu du Izagirrek.

Udalbatzarrean «batez ere EAJ eta EAKo hiru zinegotzi ilegalen dimisioa» eskatu zuten, «alderdi horiek ustez eta hitzez legearen kontra daudelako eta beste bi zinegotzi ilegalak legea egin eta sustatu zuten PP eta PSOEkoak direnez, herrien keinu demokratikorik espero ez dugulako». «Maila pertsonalean» ere ardurak badaudela erantsi zuten. Bitartean Udala eta Udalak hartutako erabakiak kontuan ez dituztela hartuko adierazi zuten plataformako kideek.

Ondorengo hilabeteetan bere postuak esijitzen eta egoera salatzen jarraituko duela azaldu du Tolosa Bizirik-ek.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212

▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423

▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua:

683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134

▶ Ibarraldea. Osasun etxea:

672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800

▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Oresa. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald:461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

**Garraioak.**

▶ Renfe Tolosa: 652889

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**Besterik.**

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

**▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Inkestak.** Zer iruditzen zaizu bikote homosexualak ezkondu eta adoptatzeko eskubidea izatea? Eta lantokietan erretzen debekatzea?

## PILOTA ▶

**HITZA** Pilota Txapelketako partidak asteburuan

Etorkizuneko mailako pilotariak ariko dira gaur eta bihar Beotibar pilotalekuan

IMANOL GARCIA

Asteburu honetan HITZA Txapelketako partidak jokatu dira. Etorkizuneko mailan binakako partidak izango dira eta Beotibar pilotalekuan jokatu dira. Gaur 11:00etan hasita, lehenengo partidari, Onsalo eta Mujika, Elurbe eta Garmendiaren aurka lehiatuko dira. Bigarrenengo partidari, Renobales eta Larrazabal, Armendariz eta Astizen aurka ariko dira.

Igandean beste partida bat izango da, goizeko 11:00etan hasita ere. Beitia eta Uriarte Urmeneta eta Aranalderen aurka ariko dira norgehiagoka.

Bestalde, aste honetan jokatutako partidetan ondorengo emaitzak lortu dituzte kadete mailan aritzen diren pilotariak: Iturrioz 18, Jaunarena 9; Idoate 18, Artola 5; Santesteban 18, Iburguren 12; Narbarte 18, Agirrezabala 6; Yeregi 18, Madariaga 3; Sarasola 18, Mitxelena 3. Etorkizuneko mailan jokaturakoa, binaka, Urmeneta eta Aranalde 22, Aranzabe eta Orbeagozo 9.

**iragarki laburrak ▶****SALGAI**

**Furgoneta.** California furgoneta salgai. 943 02 74 86.

**ALOKAIRUA**

**Apartamentua.** Alcosseberren (Castello) apartamentua alokatzen da 2-4 pertsonentzat terraza, pizsina, hondartza, aire egokitua eta garajearekin. Deitu 943 65 00 19.

**LANA**

**Tabernaria.** Tolosaldea. Neska eskalduna behar da taberna batean 4 ordu lan egiteko. Esperientzia duena. Deitu 675 70 11 78.

**Zerbitzaria.** Tolosaldean astebukaeratarako zerbitzaria behar da. Deitu 677 32 99 34.

**Sukaldaria.** Astebukaeratarako eta oporreb ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33.

## BERTSOLARITZA ▶

**Haritz Mujikak eta Oihana Iguaranek sariak jaso dituzte**

**Erredakzioa ▶** Ostegunean egindako ekitaldian 25 urte bete ziren Gipuzkoan Eskolarteko Bertsolari Txapelketa antolatzen hasi zirenetik. Ekitaldi honetan eskualdeko bi bertsolari gazteek sariak jaso zituzten bertso paperetan. Bederatzi urteko Haritz Mujika asteasuarrak —argazkian sariarekin— txikiaren mailan txapela eskuratu zuen. Bere mailan bertso bat edo bi kopia egin behar izan zituen. Bigarren txapela da lortzen duena jarraian asteasuarrak. Hamahiru urteko Oihana Iguaran amasarrak bere mailan hirugarren postua egin eta aipamen berezia lortu zuen. Iaz ere sari bera eskuratu zuen. Bi bertso egin zituen, hamarreko handian. A. AGIRRE

## ASTEASU ▶ HERRI KIROLAK

**Herri kirolen jaialdia gaur pilotalekuan****Urrezko Harri-jasotzaileen eta Aizkolarien lehiaketak izango dira**

IMANOL GARCIA

Herri kirolen bi lehiaketa burutuko dira gaur gauean Asteasu pilotalekuan. Izen handiak ariko dira bere indarrak neurtzen, 23:00etan hasita. Alde batetik harri-jasotzaileak eta bestetik aizkolariak. Urrezko harri-jasotzaileen lehiaketa *Pastorkua Memoriala* izango da jaialdia hasiko duena. Lehiaketako finalerdia jokatuko dute Ostolaza eta Izeta IV.ak Irigoien eta Izeta III.aren aurka.

Harri-jasotzaileek egin behar duten lana ondorengoak izango da: 200 kiloko errektangularra, 100 kiloko zilindrozaharra eta 100 kiloko bola igo

beharko dituzte. Bi minutu eta erdiko txandak izango dituzte eta 7 puntu jokatuko dituzte.

Lau kirolari horien lehiaketa amaituta, aizkolariak ekingo diote. Urrezko Aizkolarien lehiaketaren baitan, Gurea Kai-ku Sari Nagusia, ariko dira eta final txikia edo, bestela esanda, hirugarren eta laugarren postuak izango dituzte jokoan. Jose Mari Olasagasti eta Mikel Mindegia ariko dira nor baino nor. 12 enbor ebaki beharko dituzte aizkolariak: lau 45ekoak, lau 54ekoak, bi 60koak eta bi 72koak. Ohi den moduan, jende asko espero da jaialdi eta lehia interesgarri hau ikustera jatea Asteasura.

## ADUNA ▶ UDALA

**Hauteskundeei buruzko mozioa onartu du Udalak**

«Kargurik ez dagokien hautetsiei», 182.2 artikulua martxan jartzea eskatzen die

ERREDAKZIOA

Adunako Udalak, osoko bilkuran, hauteskundeei buruzko mozioa aztertutik, maiatzaren 17an onartu zuen aho batez. Besteak beste, espainiar Alderdi Legearen aplikazioak sorturiko «eskubide zibil eta politikoen urraketa egoera hau ahalik eta azkarren gaitzearen beharra egiten du» Udalak.

Adunako Udalak 2003ko udal eta foru hauteskundee-tan milaka herritarrek «bozka bidez emaniko hitza errespetatzearen premia aldarrikatzen du».

Testuak azaltzen duenez, «norabide horretan urrats sendo eta ausartak ematea, herri honen eta bi estatuen ar-

teko gatazkaren konponbidean ezinbesteko pausua dela uste du».

Mozioaren beste puntu batean adierazten denez, «Udal honek, herri borondatearen arabera kargurik ez dagokien hautetsiei, LOREGaren 182.2 artikulua bidea martxan jartzeko deia egiten die».

Bestalde, Adunako Udalak ahalik eta azkarren «guztiki desio dugun egoera horretara iristeko beharrezkoak diren pausu guztiak eman dituzten eskatzen diegu beste udalei».

Azkeneko puntuan, «erabaki honen berri herritarrei eta beste udalei zabaltzeko konpromezua hartzen du» Udalak eta bando bidez heleraziko du bai Tolosaldeko herrietara, bai Adunako biztanleei.

## IRURA ▶ KULTURA

**Bartzelonan izango da asteburuan dantza taldea**

ERREDAKZIOA

2004ko sanmigeletan Bartzelonako Torrelles de Llobregateko dantza taldeak saio bat eman zuen Iruran. Orduan Irurako dantza taldea gonbidatu zuten kataluniarrek bere herrian dantza egin zezaten.

Torrellesen asteburu honetan Gereziaren Jaia ospatu behar dute urtero bezala eta gainera aurtun 25. aldia betetzen dute. Ospakizuna berezia izango da, eta Irurako dantza taldeak bertan parte hartuko du. Dantza taldea gaur goizean abiatuko da Bartzelona aldera, eguerdi partea hiriburuaz egazutzen emango dute eta arratsalde-ilunabarrerako Torrelles herrira iritsiko dira bertako dantzarien etxeetan gaua pasatzeko eta hurrengo arratsaldean Gereziaren Jaian parte hartzeko. Bihar gauean irtengo dira itzuleran eta goizean iritsiko dira herrira.

## ZIZURKIL ▶

**Mendi martxa bihar Zarate ingurura**

San Millan herri eskolako Urkamendi Guraso Elkarteak biharko mendi martxa antolatuko du. Zarate inguruko paraje eta baso zoragarriak ezagutzeko aukera izango da. Mendizale handiak plaza-tik goizeko 09:15ean abiatu daitezke eta txikiak, berriak, kotxez 10:00ak aldera abiatuko dira Zarateraino.

## VILLABONA ▶

**Aste Berdearen ekitaldiak Gurea ondoko plazan**

Ernioladeko Udaltalde 21ek antolatuta Aste Berdearen batan ekitaldiak izango dira bihar Gurea ondoko plaza edo aparkalekuan. 11:00etan Zizurkilgo Kaxkagor taldearen Zaborra bor-bor antzezlan eskainiko da. Ondoren, haurerantzako jolasak eta taillerra izango dira, musika eta freskagarriez lagunduta.

ALTZO ▶

**'Kirola kalera ateratzeko eguna' antolatu dute bihar**

Natur ibilaldiak eta pilota norgehiagoek osatuko dute eguneko egitaraua

N. LATABURU

Nazio Batuen Erakundeak heziketa fisikoaren eta kirolaren nazioarteko urtea izendatu du 2005a, «heziketaren eta gizartearen garapenerako jarduera fisikoak duen garrantziaz jabetzeko». Honen harira, Gipuzkoako Foru Aldundiak *Kirola kalera ateratzeko eguna* izendatu du biharkoa. Bada, Altzoko Udalak, Santillazpi guraso elkar-teak eta Elordi kultur eta kirol elkarteak bat egin nahi izan dute egitasmoarekin.

Horrela kirol hainbat kirol ekitaldi antolatu dituzte biharko; batetik, plazatik ir-tengo den natur ibilaldia egingo dute 10:00etatik aurrera eta frontoian amaituko da. Bertan edaria eta sariak eskainiko dituzte parte-hartzaileentzat (janaria norberak eraman beharko du). Bestetik, 11:30ean, Tolosaldeko II. Topaketan barruan kadete mailako finalerdiko neurketak jokatu dira pilotalekuan. Lehen partidari Arretxe eta Pinar bikotea (Bezazana) ariko da Artola eta Garmendia (Zazpi iturri) bikotearen aurka. Bigarren-gan, Ormaetxea eta Urruzola (Erniope) Ibar-guren eta Artolaren (Elordi) aurka.

**Gaur, bertso magia saioa**

Gaur ere izango da zer ikusi Altzon. Izan ere, Alain Urrutiak eta Jon Martinek bertso magia ikuskizun umoretsua eskainiko dute 22:00etan Elordi elkartearen.

AMEZKETA ▶ KULTURA



Aurreko igandean txabola ingurutik eginiko txangoan. HITZA

**Gaztetxoekin Buruntzunzin aldera**

Gaur abiatuko dira 16:00etan, heldu zein gazte, txabolara txangoa egitera

NOELIA LATABURU

Buruntzunzin elkarteak ekitaldi gehiago antolatu ditu aste-buru honetarako. Aurreko as-tean helduei zuzenduriko pro-grama eskaini bazuen —direktiba berriaren aukera-keta, diapositiba emanaldia, hitzaldia eta txabolaren inguru-ko parajeetan zehar ibilaldia—, etxeko gaztetxoek ondo pasatze-ko txanda iritsi da gaurko-an.

Bada, 16:00etan abiatuko dira Buruntzunzin elkarte-ko txabola aldera. Zumadi eskola-ko aurrealdean topatu ondo-ren. Umeen ardura hartuko du-ten heldu asko ere egin du bat asteburuko irteerarekin. Elkar-

teko kideen esanetan, «badiru-di helduek gaztetxoek baino ilusio handiagoa dutela». Behin txabolara heltzen dire-nean, hainbat joko antolatu di-tuzte umeentzat. Janaria eta bestelakoak ere prest dituzte dagoeneko.

**Bainujantziak motxilan**

Gainera, eguraldi onak lagun-duko balu, erre-kara bisita ere egingo dute; bainujantziak be-raz, motxilan ezinbestekoak izango dira asteburu borobil batez gozatze-ko. Gaua txabo-lan igaro ostean, herrira buelta igande arratsaldean egingo dute heldu zein gazte, 19:00ak aldera.

MANIFESTAZIOA ▶

**Bilboko manifestaziora joateko deialdia**

Abaltzisketa, Alegia, Altzo, Orendain, Ikaztegieta eta Ba-liarraingo herritarrei deial-dia luzatu zaie gaur Bilbon *Orain herria, orain bakea* le-leopean izango den manis-festaldira autobusez joateko. Bi geldialdi egingo dira: Ame-zketan 15:00etan herriko pla-zan eta Alegian 15:15ean zu-bian. Ibarrran, berriz, 15:30ean Kultur Etxe parean. Bestalde, Villabonan Iratzar tabernan eta Tolosan ohiko lekuetan eman behar da i-zena.

IKAZTEGIETA ▶

**Begiristain, IV. Sagardo Lehiaketan**

Ikaztegieta Begiristain sagardotegia Gipuzkoako Foru Aldun-diak antolatzen duen IV. Sagardo Lehiaketako finalean izango da gaur Donostian. Beste finalistak Usurbilgo Urdaira, Zeraingo Otatza, Astigarragako Gurutzeta, Andoingo Gaztañaga eta Irun-go Ola dira. Partaide gehien bildu dituen edizioa da aurtengoa, guztira 28 sagardo ekoizleek eman baitute aurten izena, iaz bai-no 7 gehiago. Parte hartzen duten sagardotegiak Gipuzkoako 15 herritakoak dira. Lehiaketa hau Gipuzkoan kokatuta dauen Eus-ko Jaurlaritzako nekazaritza industri-errodan alta emanda dauden eta botilaratzaile agiria duten sagardo ekoizleei zuzen-duta dago.

ALEGIA ▶

**Partida gehiago Xantoxen txapelketan**

Asteburu honetan neurketa gehiago jokatu dira Ale-gian Xantoxen omenez anto-latutako txapelketan. Atzo txikien partidak jokatu ziren, gaur helduen txanda izango da: 15:00etan Uau Roberto eta Ospela taldeak ariko dira aurrez aurre, L taldekoek ar-bitratuko dutelarik. 16:00-etan Kokox Klan eta L taldeek jokatu dute, (Budweiser arbitroak). 17:00etan Txur-txil eta Budweiser ariko dira (L-ren arbitraiarekin) eta 18:00etan Etxale Kuyons As-ton Bila (Budweiser).

ALEGIA ▶

**Intxurreren denboraldi amaierako afaria**

Urtero legez, Intxurre futbol taldeak 2004/05 denboraldi amaierako afaria egingo dute gaur gauean. Herriko plaza izango dute topaleku, gaueko 20:00etatik aurrera. Bertan sagardoz bustitako afaria eskainiko zaie jokalari eta direktibako guztiei. Bes-talde, denboraldi amaiera guztietan hainbat sari ere banatuko zaizkie jokalariei, besteak beste, denen artean erabakitako denboraldiko jokalaria onenari eta erregu-larrenari.

IKAZTEGIETA ▶

**Udaberri sariko bi neurketa jokatu dira gaur**

Gaur 16:00etan hasita, Pilota elkarteak antolatutako pilota elkartearen arteko infantil mailako Udaberri sariko bi neur-keta jokatu dira Ikaztegie-tako pilotalekuan. Lehenda-biziko pilotariak 3. eta 4. postuen lehian ariko dira. Donostiako Alde Zaharra Andoingo Gaztelekuren aurka. Bigarren partida finala izan-go da Zumaia eta Altzoko Elordiren artean. Finaleko azken bikote hau Eneko Goi-tia amezketarrak eta Aitzol Galarraga altzotarrak osa-tzen dute.

**HITZA** lagun<sup>en</sup> **txokoa** 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartze-ko aukera izango dute.

▶ HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero



GAZTELU ▶ KIROLA

# Patxi Mujikak korrika eta aizkora saioa burutuko du bihar

Tolosatik korrika joango da Gaztelura, eta iristean, herriko plazan kanakoa moztuko du; ondoren bazkaria izango da

IÑIGO TERRADILLOS

Patxi Mujika, 60 urteko gazteluarra, marka berri bat ezarzen saiatuko da bihar. 11:00-etan Tolosako udaletxe zaharretik aterata korrika igoko da errepidetik Gaztelura, eta bertan, herriko plazan kanako (2'50 metro) egurra moztuko du. Aitor Esnaola, Joxe Gabirondo eta Gazteluko Udala ibili dira antolatze lanetan.

Gazteluko festetan sortu zen marka hau egitearen kontua; «kanako enborra moztzen aritu nintzen, eta orduan apustuarena aterata zen», azaltzen du gazteluarra. «60 urte bete behar nituen, marka bat jarri behar nuela esan zidaten lagunek, eta ideia hura aurrera aterata zen». Hasieran egurra mozteaz hitz egin zuten, baina zerbait gehiago egin zitekeela eta korrika saio baten ondoren aizkora saioa egitea pentsatu zuten. «Alderantziz egin izan dute, hau da aizkora lehendabizi eta korrika ondoren, baina egitera noana estrainekoz egiten dela uste dut», dio gazteluarra apustuaren inguruan. Azken astean atseden hartu badu ere entrenatzen egon da eta bere burua nahiko ondo ikusten duela dio. Gainera, jende askok animatu duela eta horrek ere indarra eman diola azaldu du.

Festa polita izango da Gaztelu bihar. Apustuaren ondoren bazkari ederra egingo baitute Kontzejuan trikitilariak eta bertsolariak alaituta. Bertara joan nahi duenak 637 10 88 82 zenbakira deitu beharko du.



Patxi Mujika gazteluarra marka ahalegina egingo du bihar. I.T.

## Herri-kirolak odolean

Gazte gaztetik gustatu izan zaio Patxi Mujikari kirola egitea, eta euskal kirola, batez ere. Esperientzia handia du herri kirolean, eta hori bere etxean dauzkan batean eta bestean irabazitako hainbat eta hainbat garaikurrek argi uzten dute. Izan ere, gaztea zela, txinga proban aritu izan da. Bizkaian egiten zituen batik bat erakustaldiak, han bete inon baino zaletasun handiagoa baitzegoen. Igandeetan

egiten zituzten probak edo erakustaldiak, eta bakoitzean hiru edo lau herritan aritzen ziren. Bere belaualdikoek utzi zutenean galtzen joan zen pixkanaka kirol honekiko zaletasuna.

Semea, Jexux Mari Mujika, aizkolaria da eta hasi zenetik haren ondoan izan da aita aholkuak emateko prest. Biharko probarako, ordea, aitek semea izan du ondoan, entrenamenduetan laguntzen. ◀

IBARRA ▶ GIZARTEA



## Kubako iraultzaz jardun du Frank Josue Solar-ek

I.Terradillos ▶ 40 bat lagun elkartu ziren herenegun Ibarrao Gaztetxean Tolosaldeko gaztetxeek eta gazte asanbladek antolatutako Kubako iraultzari buruzko hitzaldian, Frank Josue Solar, Kubako Alderdi Komunistako kidea hizlari zela. Hitzaldia amaitzean, oroigarri gisa txapela eman zioten kubatarrari. HITZA

LIZARTZA ▶ GIZARTEA

## 'Ina'-ren omenezko ekitaldiak gaur eta bihar

Gaur Gernikara bidaia; bihar Lizartzan mendi irteera, omenaldia eta bazkaria

I.TERRADILLOS

Zazpi urte bete dira Iñaxi Zeberio Arruabarrena Ina lizartzarra hil zuela Ertzaintzak eta asteburuan omenaldi ekitaldiak egingo dituzte ETako kide zena oroitzuz.

Gaur, Gernikara bidaia antolatu dute 13:00etan Ina erail zuten lekuan omenaldia egiteko. Txalapartariak, bertsolariak, hizlariak... izango dira bertan. Bihar, berriz, Lizartzan izango dira ekitaldiak. 9:00-etan ate-rata Axurdariora

mendi irteera egingo dute lehenik. 13:00etan omenaldia egingo diote haren omenez herrian dagoen monolitoaren aurrean. Txalapartariak, bertsolariak, dantzariak eta hitzaldia izango dira, besteak beste. 14:30ean bazkaria egingo dute herriko elkartearen. Bazkarirako txartelak herriko tabernetan daude salgai.

Gernikan, 1998ko ekainaren 5ean hil zuen Ertzaintzak tiroz Ina Zeberio. Espainiako epaitegi iturriek orduan adierazitakoaren arabera, «Bizkaia komandoa desegite operazioa» egiten ari zirela hil zuten, «ETako kidea tirokatzen hasi zenean». Ondorengo egunetan omenaldi ugari egin zizkieten lizartzatarrari, bai Gernikan eta baita Lizartzan ere.



Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria



**JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ**

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55  
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1  
Txarama auzoa • 20491 Leaburu



**Salgai (Tolosa).** Pisua igogailuarekin Laramendi kalean 112m2. Bista zoragarriak.

**Salgai (Tolosa).** Pisua Belate Ibiltokian. Bista zoragarriak

**Salgai (Tolosa).** Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate Ibiltokian.

**Alokatzeko (Alegia).** 3 logetako pisua, Alzarrekin.

**Alokatzeko (Tolosa).** Lokal komertziala Erenentzari kalean.

**Alokatzeko (Tolosa).** Garajea Pedro de Tolosa kalean eta Araba Etorbidean.

**Alokatzeko (Tolosa).** Garajea Euskal Herria kalean.

**Alokatzeko (Salbu).** 4 edo 6 lagunentzako 2 logetako apartamentua. Igerilekuarekin.

**943 65 17 13 / 677 46 09 16**

**Kontsu Taberna**

**OREXA**

**ASTEBURUKO MENUA**

**943 68 21 54**

LEITZA ▶ XXVII. KULTUR ASTEA

# Gazteak protagonista izanik, bukaera indartsua emanen diote Asteari

Gaur biharretan, egitaraua bete ekitaldi dute zain: betsoak, antzerkia, hormirudia, musika, dantza; aukera bada



Mingaina hozkan hartu eta tira! Berebiziko ahalegina egin zuten txalupetan arraunean. JAIONE ASTIBIA



Balearen bizkarretik irrian, plasta itsasora! J. ASTIBIA



Txandaka, birleak iraultzen asmatzen zuten. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Atzo zortzi hasi Kultur Astea eta dagoeneko azken egunetan bada ere, asteburuko kutsu bizkorrekin egingen dute.

Atzokoan gaztetxoek izan zuten zertan ibilia: arratzale joakoetan aritu ziren, Kulkirekin. Haur Eskolako «handienak» eta Erletako ikasle guztiak, hantxe ibili ziren, jostetan, batetik bestera, gelditu gabe, adin guztietarako aukerako jokoak izanik. Ziotenez, «oso gustura» ibili ziren, «ume asko» eta «oso adin desberdinetakoak izanagatik ere», «elkarrekin oso ongi moldatu direlako», baieztatu zuten arduradunek, «handienak ttikienei laguntzen eta erakusten ere aritu dira», nabarmendu nahi izan zuten.

Goizean jostaketan ibilitako asko, arratsaldeko Aralar musika eskolako ikasleen kontzertuan parte hartzeak ziren. Ikusle askoren aurrean, ikasle guztiak parte hartuz, ikasturtean zehar landutako musikatresnak eskuan, kontzertu bikaina eskaini zuten: hogeitau baina gehiago eskaini zituzten, bertara bildutakoen gozamererako. Gero, «arratsaldekoa», edo tenoreagatik afora akaso, egitekoak ziren, guztiak elkarrekin.

Eta gaurkoa ez da gutxiagotarako izanen. Bereziki, gazteek beraiek ere antolatutako hainbat ekitaldi izanen baitira.

Gazte eta helduentzat bideratuta, *Ke takoiak* lanarekin etorriko da Atarrabiako Bele Bizi taldea zinemara, 16:30ean: «kabareta» da, eta, beraz, «dantza, kantuak, umorea eta beste osagai batzuk» ere bai

omen ditu. Umorezkoa izanik eta inprobisazioak ere garrantzia baduelarik «obra freskoa» dela azaldu zuen atzokoan, Birginia Albira taldeko kide eta aktoreak. Antzerkiari, ekintza parte hartzaileek jarraituko diote, hormirudiarekin. Eta handik aurrera, jai giroa nagusituko da, gazte afaria tartean dela, mota askotako musika taldeen emanaldiekin: Mulanbo perkusio taldea lehendabizi eta Kramem, Gaitz, Khaus, Eko 4 eta Banda batxoki taldeen kontzertua gero. Estilo eta gustu guztientzat modukoak.

Bihar, berriz, Portugaletetik etorriko diren dantzari ttikienei egiteko, dantza saio polita dute prest bertakoek: gutzira 60 dantzari ariko dira, hango eta bertako dantzak eskainiz.

Eta Kultur Asteari, Jarauta 69 txarangaren kalejirarekin emanen diote bukaera. Baina ordu arte, ongi ibili.

## EGITARAUA ▶

### GAUR

**16:30.** Bele bizi taldeak *Ke takoiak* antzezlan eskainiko du zinemara.

**17:30.** Hormirudia, plazan.

**19:30.** Bertso-triki poteoa.

**21:00.** Gazte afaria, Karrapean.

**23:00.** Mulanbo perkusio taldearekin kalejira.

**01:00.** Kontzertua plazan.

### BIHAR

**12:00.** Portugaleteko eta Leitzako dantzari ttikiak, plazan.

**18:00.** Jarauta69 txarangarekin, kalejira.

LEITZA ▶ GIZARTEA

## Haurren txokoa prestatzen ari dira

Uztailean, 4-10 urte bitarteko umeentzat, ekintzak antolatuko dituzte

J. ASTIBIA

Umeak eta euren gurasoek ere laster hastekoa den udako oporraldiari begira jarrita daude. Horrela, guraso talde bat Haurren Txokoa antolatu nahian ari da: uztaileko, 4-10 urte bitarteko umeentzat hainbat ekintza prestatzeko intensioa dute, nahiz barrukoak

(kamixetak margotu, buruhandi eta maskarak egin, buztina, papera egin, e.a.), nahiz kanpokoak (herri kirol konbinatuak, baloia, pilota, e.a.). Gainera, astean behin ateraldi bat ere egingen omen dute, «herri inguruan», hori bai, Leitzako herria bera eta «bertako parajeak» ezagutzeko asmoz.

Ekintza hauek guztiak, haur-

tzaindegiko pinturako gelan egingen omen dituzte, uztaile osoan, 9:00etatik 13:00etara. «Uztailean etxean ez gelditzeko» esanez, ekainaren 15erako eman behar da izena, Maimurren edo Astizen, «gutxienez aste beterako», eta ume bakoitzeko 30 euro ordaindu; 2 astetarako, 50 euro; 3 astetarako, 75 euro; 4 astetarako, 90 euro.

## iragarki laburrak ▶

### Gidariak.

Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritza. Astean 35 ordu. Informa zaitetz.

943 22 46 85.

### Suhiltzaileak.

Hurrengo deialdiak: Gipuzkoa. 1.400 euro/hilean.

Astean bi lanegun. Azken lanpostuak. Informazioa doan.

Telefona: 943 22 46 85

### Administrari laguntzaileak.

Hurrengo deialdiak: Beasain,

Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil,

Mendaro, Anoeta. Lanaldia: zuzeneko

ostiralerara, 8:00-

15:00. Informazioa doan.

Telefona:

943 33 46 85.

### Herri haurtzaindegiak.

Honako

lanpostu hauek bete behar dituzte:

haurtzainak, hezitzaileak.

Informazioa doan. 943 22 46 85.

### Sukaldeko laguntzailea,

zerbitzariak.

Hurrengo deialdiak: herri erakundeak. Informa zaitetz.

943 22 46 85 telefonoan.

### Peoiak, ofizioko langileak.

Lanpostu finkoak: igeltseroak,

argiketariak, iturginak... eraikin

publikoetan mantentze-lanetan

aritzeko. Lanaldia: asteleheneetik

ostiralerara, 8etatik 15etara.

Informazioa doan. 943 22 46 85.

### Laborategia.

Plaza libre:

teknikoak, ikergetziko laguntzaileak,

eusko jaurlaritza. Informazioa doan.

943 22 46 85.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

**Albiztur.** Landarbaso abesbatza, bihar, 12:00etan hasita, elizan.

**Alegia.** Intxurre futbol taldearen denboraldi amaierako afaria plazan jokalaria guzkiekin 20:00etan.

**Altzo.** Alain Urrutia eta Jon Martinen *Bertso magia*, elkartearen, 22:00etan.

**Anoeta.** Mikel Oiarzabal eta Andoni Urkolaren omenezko txirriindulari lasterketa, 16:00etan.

**Ibarra.** Haitzetan Raju mendi taldeak antolatutako irteera 09:00etan plazatik abiatuko da bihar Gorritira.

**Ikaztegieta.** Pilota partidak, frontoian, 16:00etan: pilota elkartearen arteko infantil mailako Udaberri Sariko finala eta 3-4. postuak jokatu dira Alde Zaharra eta Gaztelekuren artean.

Finalean: Zumaia eta Elordi.

**Tolosa.** Aste Berdea dela-eta bidegorriaren inaugurazioa 11:00etan; 18:00etan klima aldaketari buruzko *El dia de mañana* filma Kultur Etxean.

Bihar, Uzturrera igoera 09:00etan Santa Klaratik aterata, 11:00etatik aurrera ekintza ezberdinak Uzturren eta 12:30ean abereak haurrentzat Izaskunen.

**Tolosa.** Txinparta elkarteak bere eguna du: 19:00etan Polvo y Paja txaranga kalera aterako da eta 20:30ean bazkideen afaria elkartearen.

**Tolosa.** Gure Txokoa elkarteak antolatuta, Ardo Zuriaren Azoka (Iparraldeko Donejakue bidea, kostatik). 12:00etatik 14:00etara, Plaza Berrian. Euskal Herriko eta Galiziako 15 ardoetxek hartuko dute parte ekimenean.

**Tolosa.** Batasunak Bilbon deitu duen manifestaziora joateko autobusa, 15:30ean Triangulotik abiatuko da.

**Tolosa.** Garagardo Festa San Esteban auzo elkartearen 00:30etik aurrera. Dja ariko da ondorengo goizaldera arte.

**Tolosa.** Igarondo udal igerilekuko kanpoaldeko piszina astelehenean zabalduko dute.

**JAIK**

**Txarama.** 11:00etan patata tortila dastaketa; 12:30ean toka txapelketa; goiz osoan auzoko argazki zaharren erakusketa; 17:00etan Korri

ta Xalto pailazoak; ondorengo txokolatada; 18:00etan helduen eta gazteen arteko apustua; 21:00etan afaria Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertsolarietako eta Saioa eta Alabier trikitarietako.

MUSIKA

**Tolosa.** Atila y los Unos, Otsabi auzo lokalean, 22:30ean. Sarrera doan.

**Tolosa.** Tolosandblues jazz eta blues jaialdiaren baitan, 20:00etan Mikel Azpiroz Trio Fronton kafetegian; De 2 en Blues Band 22:00etan Plaza Berrian eta Big Mama eta Joan Pau Cumellas Fronton kafetegian 23:00etan. Saio guztiak doakoak izango dira ikus-entzuleentzat.

ZINEMA

**Tolosa.** *Las tortugas*

*tambien vuelan;* Leidor zinema aretoan 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean. Bihar ere ordu horietan izango dira saioak.

GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**  
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.  
Tolosa. Bronte. Korreo, 20. 943 67 60 13.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Bizikletaren aldeko deia

**TOLOSA** ▶ Nazioarteko Ingurumenaren aldeko Egunaren bueltan, Aste Berdea ari dira egiten herrian; bizikleta garraio gisa erabiltzeko deia egin du Udalak



Aldaketa klimatikoarekin zerikusia duten ekintzak egin zituzten atzo Trianguloan: gazteboek autoaren eragina ondo ulertu zuten, eta 19 lagun sartu ziren batera; herrialde azpigaratueta ura leku batetik bestera garraiatzea zenbat kostatzen den ere jakin zuten. I. ETXEBESTE

IRATXE ETXEBESTE

**N**azioarteko Ingurumenaren aldeko Egunarekin batera, aurten ere berriro iritsi zaigu Aste Berdea. Worldwatch delako erakundeak ingurumenaren egoerari buruzko iragarpena egiteko erabiltzen dituen datuen arabera, egun bakar bat ez da nahikoa dauden arazoei errepartzeko. Arazo horiek bizilekuaren arabera jasaten ari gara orain, baina etorkizunean denoi iritsiko zaizkigu, ez badiogu geure kontsumoari eta naturaren okupazioari neurrik jartzen. Modu horretara egin dute Zuloaga Txiki Ingurumen Eskolako arduradunek aurtengo Aste Berdearen aurkezpena.

Hori gogorarazteko Kultur Etxeko bakoian Aste Berdeko bandera zabaldu zuen astelehenean Udalak, eta herriko sarreteran eskolako haurrek iaz autoaren erabilpena gutxitu eta hobetu daitekeela oharrazteko idatzitako mezuak jarri. Astelehenean hasitako ekimenari bihar emango diote amaiera udal arduradunek. Ingurumen zinegotzi Joxelu Anduezen hitzetan, Aste Berdearekin «beste pauso bat eman nahi dugu mugikortasunaren alde, eta herritar guztiei gure mezu helarazi nahi diegu, zailtzarrik ez baitaukagu orain denbora dezente ekin genion bideari jarraitu behar diogula eta aurrerantz jo behar dugula Tolosa modu eramangarrian garatzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko». Bada udal ordezkarien mezu horrek bizikletaren aldeko apustua dakar oraingo-

EGITARAUA ▶

**GAUR**  
**11:00.** Bidegorriaren inaugurazioa San Frantzisko pasealekuan, Arxibategi aurrean. Bizikletarekin parte hartzen dutenei txirrina bana oparituko diete.  
**18:00.** Klima aldaketari buruzko filma: *El dia de mañana*. Kultur Etxeko areto nagusian.

**BIHAR**  
**09:00.** Santa Klaratik atera, eta Uzturrera igoera.  
**11:00.** Uzturren, askotariko ekintzak: udal txistulariak eta tronpetak eta *Uzturre* ereserkiaren estreinaldia Gure Txokoa elkarteak abesbatzaren eskutik, elkartearen 75. urteurren ekitaldien baitan.  
**Ondoren.** Hamaiketako.  
**12:30.** Ordu horretatik aurrera, haurrentzako pottokak, txerriak, abereak... Izaskunen.

an, eta apustu horrek bi beharri erantzun nahi diela esan du Anduezak: «Herriko espazioak (oinetakoak, bizikleta, autoak...) modu arrazional batean erabiltzea, eta kaleak seguruago eta atseginoago bihurtzea».

Ido horretatik, bizikleta erabiltzeak dakartzan onurak izan ditu aiputan: herri barruan azkarrago mugitzeko balio duela, garbia dela eta osasunarentzat mesedeko, zaratarik ez duela ateratzen... «Elkarbizitzako gurek atseginoago egiten dituzte, eta ingurumenari mesede handia egiten dio, gainera».

AGURRAK ▶

**HITZA, zorion agurren tartea**

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoiztelara:  
Araba etorbidea, 5. beheko - TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.  
Mila esker!